

Amaitzeko, eta laburpen gisa, zera esango nuke, *Elkarrizketa* ez da narrazio hutsa, ezta ere oinarritzko elementu batzuren kutxa. Horrez gainera, prozesua da. Prozesu horretan elementu askok hartzen du parte: testuak, irakasleak, metodoak, ikasleak. Denen arteko lokerak eta partaidetasunak ematen diete zentzua nahi ditugun helburuei. Eta gure helburu nagusia euskara da, hots, euskara ikastea; beraz, ahalik eta hobekien eta laisterren, ikasitakoa erabili.

*Joxe Erzibengoa*

## IRUDIEN DESKRIBAPENA BIGARREN HIZKUNTZAREN IRAKASKUNTZAN

### 1. HELBURUAK

#### 1.1. Helburu orokorrak

- ☐ Afektibitatearen alorrekoak:
  - Hizkuntzaren ikaskuntzan horrelako ekintzek duten garrantzia atzematea.
  - Ikaslearen hizkuntza ikasi nahiaz baliatuz, beraren partaidetza lortzea.
- ☐ Adimenaren alorrekoak:
  - Egoeren deskribapenean trebatzea.

#### 1.2. Helburu bereziak

- ☐ Denborazko esamoldeak taxuz erabiltzea:
  - Lehen..., gero..., ...(e)nean.
- ☐ Aditzaren aldiak –lehenaldia– zuzen erabiltzea.
- ☐ Hamar hitz berri –gutxienez– norbereganatzea.
- ☐ Antonimoak bereiztea: Irikia/itxia; barruan/kanpoan...

### 2. EDUKIAK

- ☐ Aditzaren lehenaldia.
- ☐ Denborazko esamoldeak: lehen...; gero...; ...(e)nean.
- ☐ Gaiari dagokion hiztegia.
- ☐ Elkarrizketaren kontrako hitzak: Irikia/itxia; barruan/kanpoan...

### 3. METODOLOGIA

- ☐ Ikastalde osoari adierazi zitzaion nolako lana egingo zen, oso azalpen zabala emanaz.
- ☐ Ikaslearen banakako lana.
- ☐ Talde txikikako lana, banaka egindako lanak parekatzeko eta guztien artean lan bat osatzeko.
- ☐ Talde txikikako lana klase osoaren aurrean aurkeztu.

Ikasleak taldeka lanean ari ziren bitartean, irakaslea taldez talde ibili zen, zalantzak argitzen, arauak ematen, lana ikuskatzen.

#### 4. METODOLOGIAREN ZERGATIA

Banakako lana beharrezkoa dirudigu, ikasle bakoitzak bere ezagutzak egiazta ditzan eta, aldi berean, bera bakarrik eta bere ahalez lanean aritzen saia dadin.


Lana talde txikitan egiten denean, besteek baino zailtasun handiagoak dituzten ikasleei beren kidekoen bitartez –eta ez irakaslearen egitez– ezagutzak handitu eta zalantzak argitzeko parada ematen zaie.

Nork egindakoa besteen aurrean azaltzeak talde bakoitzaren lana ezagutu eta parekatzeko aukera ematen du.


#### 5. MATERIALA

- Irudien fotokopiak.

HILKETA AURRETIK



HILKETA ONDOREN



- Ikasle bakoitzaren materiala: paper-orriak, boligrafoa (hiztegiarik ez da eribiliko).
- Ikasgelako tresneria: arbela eta klera.

## 6. EKINALDIREN GARAPENA

a) Irudiaren aurkezpen arin bat egin zen lehenbizi, bi marrazkien arteko aldeak azalduz. Bi irudietan leku bera azaltzen zela esan zitzaien, baina batean hilketa gertatu aurretik eta bestean ondoren, eta aldeak nabarmenak zirela.

Azalpen honen helburua argia da: ikasleak egoera baten aurrean jartzea (oraindik ez da hitz edo egitura berririk sartu nahi).

b) Ondoren bi minutu eman zitzaizkien, irudia ondo begira zezaten. Gero bi ikaslek bi irudien arteko alde nabarmenenak azaldu zituzten labur-labur.

c) Hurren, hamar minutuko epea eman zitzaien, irudien arteko aldeak adierazteko esaldiak molda zitzaizen (oraindik ere ez zaie lehen aipatu diren gauza berri horietakorik irakatsi).

d) Hamar minutu igaro ondoren, hiruzpalau ikaslek beren esaldiak irakurtzen dituzte ozenki. Hona esandako batzu:

- Goiko irudian dena dago txukun eta ondo tolestuta.
- Behekoan desordena handia dago.
- Lehenengoan ez dago ezer ohe gainean.
- Bigarrenean gauza asko dago ohe gainean.
- Irudi batean jostailu batzu ageri dira lurrean.
- Behekoan ez dago jostailurik.

e) Ikasleek erabiltzea nahi den egitura –edukien atalean daude– azaltzeko unea da.

Ondoren bostnakako taldetan banatzen da klasea. Ikasle bakoitzak bakarka egin duen lana irakurtzen du. Gertatu zela uste denaren arabera, istorioa antolatzeko da taldetxoen lana, bi irudien arteko aldeak zehazkiago azalduz.

f) Hurrengo saioan, taldetxoko batek, euren artean aukeratuak, talde osoari aurkeztuko dio antolatutako istorioa. Azalpen hau egiterakoa izango da ikasitako egiturak finkatu eta zuzen erabiltzeko unea, hitz berriak eta egitura horien inguruko zalantzak argituz.

Gero, sortu diren istorioetako bat aurkezten da, arbelean idazten eta denen artean zuzentzen. Hona istorio bat, prozesu hori egin ondoren geratu zen bezala:

«Hau senar-emazte batzuren gela da. Igandea zen eta ez zen inor etxean. Lapurrak etxean sartu eta bazter guztiak miatzen hasi ziren. Bitxiak eta dirua nahi zuten. Halako batean heldu ziren etxeko jabeak eta lapurrak ikusi zituzten. Lapurrek ihes egin nahi zuten, baina gizona polizia dei egiten hasi zen eta hil egin zuten. Horregatik, hilketaren aurretik dena txukun eta bere lekuan zegoen: kajoak itxita, gauza denak ondo tolestuak eta arropak armairuan. Hilketaren ondoren, dena zegoen nahastua: armairua zabalik, leihoak ere bai, oinetakoak eta jostailuak lurrean, ispiluan marrazki bat».

Istorio guztiak azaldu ondoren, taldeko batzuk tarteko beste egoera bat ere marraztu behar zela pentsatu zuten, hilketa gertatu zenekoa alegia.

Horrela, esate baterako, aipatutako istorioan irudi berriek senar-emazteak etxera etorri eta lapurrekin topo egin zuteneko unea azalduko lukete.

## 7. BALORAPENA

Gutxiengo batek, beste era mekanikoago batean lan egiten ohituta bait zegoen, ez zuen uste aipaturikoa zitekeenik lana egiteko erarik onena.

Baina taldeak oro har gogotik lan egin zuen, galderak eginez, argitasunak eskatuz, bere iritziak azalduz eta beren koadernoetan apunteak hartuz.

Gehienek ondo eta zuzen erabili zuten lehenaldia eta honen kontrakoak. Denborazko egiturak bereganatzea zailago gertatu zitzaion eta beste zenbait ariketaren bitartez hurrengo saioaren batean horretan jarraitzeko premia nabarmendu zen.

Hitz asko eta asko erabiltzeko aukera eman zuten irudiek, eta uste genuen baino hitz gehiago atera zen.

## 8. EKINALDI HONEN ARRAZOIAK

Bi eratan aritu ziren ikasleak lanean: banaka eta taldeka. Eta bietara ohitu behar dute.

Bestalde, garapenaren e) atalean sartu zen ekintza sormenezkoa zen, eta hizkuntzaren funtzio komunikatiboarekin lotura zuzen-zuzenak ditu. Une horretan izango du ikasleak bere sormena eta landutako materiala diskurtso gisa anolatzeko parada [c] eta d) pausoak]. Esaldi soltek, testuinguruz kanpokoek, ez diote hizkuntzaren funtzio komunikatiboari laguntza handirik ematen. Horregatik da inportantea ekintza hau, horretan sortzen bait da benetako egintza komunikatiboa.

*Kontxita Ruiz Apilanez  
Itzultzailea: Boni Urkizu*